

## Andoingo Oria ibaia

*Zeruko Argia*, 432. zk., 1971-06-13: 7.

Andoingoa bezala aitatu dut Oria ibaia; ez da andoaindarrena bakarrik, noski, baiña ba da andoaindarrena ere. Erri batzuk itsas-erriak eta besteak baserriak diren bezala, ba dira ibai-erriak direnak ere, eta Andoain duzute onelakoxe bat.

Oria ibaiak ba zuen nere aurtzaroan gaur ez duen bizia. Ez da iñoiz amorrai fiñak bizitzeko behar duten kristal-urez osatua izan, Larramendik dionez, Oria ibaia orain dela berreun urte ere lurrez oritua jeixten zen; ala ere, orain dela berrogei urte orindik lurrez ori, bai, baiñan barboz eta aingirez bizirik jeixten zen.

Oriak ba zituen bere bolarak.

Udara eta udazken patxarakoak artzen zituen orduan ere, eta gure zugaitz, belaz eta etxeei begira, geldi-geldi, egiten zuen itxasorako biaje ederra; baiña negu eta udaberriko euriak arrotzen zutenean, puztutzen eta aunditzen eta igotzen asten zen; goitik behera presaka zetorren ur-tira lodi, teuk, zabal eta ori-ori hura itxaso bidean ostutako enbor, txerri, asto eta guzti amildegi batera balijoa bezala jeixten zen. Andoainen oraindik itxasorik ez genduelako-edo, zurrunbillo zurgatzaille aiek asarre sartzen ziren gaixtakerirako ibai ertzeko bodega eta lan-tokietara. Eskerrak, ala ere, Allurraldek dituen soroak baxak direla (behar bada Oria bereak izanak) eta emen bere etxean, lasatzen zen pixka bat.

Egitan, Allurraldeko soroak itsaso bat balitz bezala ikusi zuten nere ume-begiak behin baiño gehiagotan.

Nere aita Pellori entzuna dut, ba zela Andoainen tradizio bat, eta onen aginduz-edo ez zirela urak, ugaldeak, iñoiz Santakruz ermitako gurutzean gizaldietan josita dagoen Kristo argal eta maitagarriaren oiñetatik gora itotzera ausartu. Alaxe, Kristoren oiñetarako neurtu ondoren jarri zuen aitik Oria-ertzean bere aroztegia; baiña alako batean urak goraka asi eta oiñetatik ez-ezik belauetatik gorakoak busti arte ez zen geratu; eta, noski, baita gure aitaren lan-tokiko egur eta makiñak ondatu arte ere!

Orrelakoetan larri ibiltzen ziren erriko bi alak: bat orduan Olajaunaneke Joxe Marik zenak ibiltzen zuen ibaiz auzko barazkiak ekartzeko; bestean, Alparokoan, Etxeberrietan bizi ziren algodonerako langilleak menditik zekarzkiten egur-sorta pranko pasa zizkien!

Guda aurreko Oria artan ez zen oraingo apar-illik eta usaiñik, eta barboak eta aingirak amuz eta sarek eta butroiez arrautzatzen ziren; batzuek balkoietatik mugitu gabe; ordurako izokiak joanak ziren, baiña Larramendik dionez (*Corografía de Guipúzcoa*) orain dela berreun urte Usurbillen eta Andoainen izokiak ere arrapatzen omen ziren. Ikusten danez, ibaiak beheraka datoz, gizon asko bezala; eta ez ibaia berez txirotu delako, gizonak ondakiñez zikindu eta ondatu duelako baizik.

Etxe-abereak eta gizon batzuk bizileku eta jan-bideak zikintzen ari dira.

Larramendi berak dio nola Andoainen burnia lantzeko behar zuten meatza Bizkaitik itxasoz eta gero Oriotik barrena txalupaz igotzen zuten. Aingurak egiten

zituzten olak Leizaran-ertzean zeuden, bai, baiña lehengo industri aundia, algodoi fabrika (1858) eta gero beste berriago diren gehenak Oria ibaiak dakarren ur-indarrez eta urak berez dituen beste egokitasunak dela merio irekiak izan dira.

Zegaman jaio eta goitik behera orain ia gorputz datorren ur-tira nagi hau ez da nolana hikoia.

Gipuzkoako luzeena eta ur gehien dakarrena bezala jotzen du Zirikiain-Gaiztarro idazleak 1951garren urtean (*Los puertos marítimos vascongados*), eta arritzekoak dira Oriaz esaten

1) Oriotik gora Tolosaraiño ontzi-ibai egiteko gai zela-ta, estudio batzuk egin ziren 1596garren urtean.

2) Oraintsu 1852garren urtean) Tolosako udal-etxeak Manuel Peironcelly injeniero jaunari proiektu ausarti bat egiteko lana eman zion: Tolosatik Andoain bitarteko beherakada oraingo ur-bidetik, eta Andoaindik behera Oriori zijoakion ugalde zati bat kendu eta Donostiaratzeko asmoz beste bide bat asma zezan; eta injenieroak egin ere bai lana: esan zuen 40 ur-ate edo eskusa egin behar zirela ortarako, eta orduko (orduko!) 6.000.000 pezeta kostatu zela.

3) Beste asmo bat ere izen zen: Joakin Inazio Zunzunegi jaunak liburuxka batean agertu zuanez. Oria ibaia zen Kantauri eta Mediterraneo itsasoak ur-bidez elkartzeko modurik erosoena (Naparroko San Adrian mendietako ego-isurkiaz baliatuz).

Ala ere, ibai onen balioa aspalditik ezagutua izan bada ere, Zirikiain-Gaiztarro jaunak (eta Erkizia, Sierra eta Urbizuk –*Orio, entre la ría y el mar*– ere) diotenez Orioko ur-sarrera ez da iñoiz ona izan, eta lehendabizi aitatu dugun egilleak dionez, oriotarrak askotan Getarira joan behar izaten omen zuten balea arrantzatzeko erabiltzen zituzten ontziak gordetzeko (1563). Beste aldetik, badakigu ziur (paperak gorde direlako) ibai ontan ontzitegiak, astilleroak, ba zirela: Aginaga, Urdaiaga eta Mapil-en.

Askotan galdetzen da Oria izena nondik datorrena.

Lehengo batean Orioko zubi ondoan lagun batzuk izketan ari giñela galdera hauxe sortu zitzaigun. Erderaz "Río Oria" deitzen diote, eta zubi-ertzean: "Ría de Orio" letreroa jarria dago. Eta erderaz alaxe da: bat, Oria *ibaia* da, eta bestea: Orioko *kresal-ibaia*. Zein ote da lehen sortutako izena? Billa ere ibili naiz, bai an ez dut argi askorik arkitu. Aspaldi-aspaldikoa da Orio, noski: 1379garren urte arte Donostiaren auzo bat izan zen, eta ezagutzen ditugun paper zaharrenak diotenez urte ontan izen onekin bataiatu zuten: *Villa Real de San Nicolás de Orio*. López-Mendizábak dionez (*Etimología de apellidos vascos*) abizenetan behintzat *Oria* eta *Oriok* jatorri berbera dute: "oro" (avena) itzetik omen dator ("oro" baiño "olo" gehiago erabiltzen dugu gaur). García Garrafak dionez (*El solar vasco-navarro*) izen hau oso zaharra omen da Gipuzkoan: "Lope García de Oria era Señor de Arriarán en 1309"; Garrafaren liburu-sail onek *Orio* abizenik ez dakar. *Oria* erri bat (eta Orio ibai ertzean) ba dugula ere ezin ahaztu. Rikardo Arregik (*Aspectos de la vida e historia de Andoain*) aitutzen du Larramendik orain dela berreun urtetik gora esana: *Oria* izena *uraren koloreak* emana dela.

Ez zen orduan, noski, gaurko ondakiñik, batez ere urak eta arraiak usteltzen eta kixkaltzen dituen azidoak; eta ur-askak bataiatu du bere lur-biguñaren kolore-izerarekin.

Nola-nahi, Rikardo Arregik aitatu dugun liburuan dion bezala, Euskalerrria artzaintzarik nekazaritzara igarotzen joan zenean, Oria ibaiko ibarrak egoki-egokiak ziren artaldeekin lurrez lur zebillen gizona lurrera josteko; erreztasun hau dela-ta egingo zituzten emen gure aurrekoak lehengo etxeak. Erriko zati hau, Oria eta Leizaran ibaien artean sortu zen errixkak, *Leizaur* izena artu zuen; beste errixka bat Buruntzaren mendinaban jaio zen: *Andoain*; XIVgarren gizaldia ezkerre bi zatiak bat eginda eta *Andoain erri bakarra bezala* agertzen dira. Geroago egiñak izan ziren, XVIIIgarren gizaldian, gaurko eliza eta udal-etxea, eta oien inguruan sortzen joan ziren etxeak.

Oria ibaia izan zen, ba, gure erriaren sor-arrazoi eta sor-leku; esan dugun bezala, gero Andoaingo industrializazioa ere Oria ibaiak sor-arazi du.

Andoain ibai-erri bat dela esan dugu; eta irudia osatzeko: ez ahal dirudi Andoainek etxez egindako ibai luze bat?